

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.



GIZARTEA

Sentimenduen analisia, Twitterren

2019(e)ko irailaren 14a, larunbata - 06:04etan eguneratua

donostia- Twitter sare sozialean bota-tzen diren txio guztietatik gai baten inguruan emandako iritziak erauzi eta sailkatzeko sistema garatu dute Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informatika Fakultateko IXA Taldeak eta Elhuyar Fundazioko Hizkuntza eta Teknologia Unitateak. Hain zuzen, bi erakundeek euskarazko txioen sentimenduak aztertzen dituen tresna bat sortu dute, euskal herritarrek sare sozialetan ematen duten iritzia ezagutzeko.

Internet eta, bereziki, sare sozialak, erabiltzaileek sortutako edukien iturri oparoa dira, besteak beste, zernahiri buruzko iri-tziak ematen dituzte erabiltzaileek, nonahi eta noiznahi, doan. Informazio horrek “berebiziko garrantzia du erakunde, enpresa, eragile eta abarrentzat, beti izan baitute interesa jakiteko herritarrek, erabiltzaileek edo bezeroek zer iritzi duten haiei buruz. Tradizionalki, kostu handia duten inkesta edo galdera-sorta bidez eskuratu izan dute informazioa, baina laginak beti txikiak izan dira”, azaldu du EHUko IXA Taldean zuzendutako lanaren egile nagusi Iñaki San Vicentek. Orain, berriz, datu kantitate erraldoiak sortzen dira sare sozialetan, eta, oro har, Interneten. Erronka, ordea, hortik interesa duen informazioa behar bezala erauzi eta sailkatzea da. *Sentimenduen Analisia* deritzon ikerketa arloak edonolako testu batean iritzi edo sentimendu positibo edo negatiboren bat adierazten ote den ebazteko metodo automatikoak bilatzen ditu. - E.P.

[Preferencias de privacidad](#)